


PLASTIKO KUTSADURA OZEANOAN

3.000 lagunentzako itsasontzi batek zortzi tona zabor solido sortzen du astean, eta gehiena itsasora doa.



1.000.000 ITSAS TXORI
hiltzen da urtero
plastikoaren erruz.




Hawaiin hilda aurkitutako itsas dortoka batek 1000 plastiko pieza baino gehiago zituen urdail-hesteetan.



**100.000 UGAZTUN
ETA ITSAS DORTOKA**
hiltzen ditu plastikoak urtero

Plastiko zati handiek marmoken antza dute, zati urratuek txipiroiena eta zati txikiak arrain arrautzena.



Alga kilo bakoitzeko 6 kilo plastiko daude itsasoan.

Zooplaktona baino ugariagoa ere bada, 40tik bateko proportzioan.

Itsasoaren eta eguzkiaren eraginez, gero eta partikula txikiagotan hausten da plastikoa, baina inoiz erabat desagertu gabe.

Ozeanoan dagoen plastikoaren erdia baino gehiago milimetro bat baino txikiagoa da.

Ozeanoetako kutsadurak gutxienez 267 espezieri eragiten die.

Itsasoko plastikoak tokiz aldatzera behartzen du fauna, eta habitat berrietan espezie inbaditzaile bihurtzen dira.

Plastikoen elementu toxikoak dituzte, baina gainera, toxina gehiago xurgatzen dute uretan. Arrainek elikagai katean sartzen dituzte.



Bost plastiko espiral erraldoi daude ozeanoetan, handiena Pazifikoan dago, Hawaii uharteetatik harago (2.200 x 800 km²).

Badira beste espiral txikiago batzuk ere, Alaskan eta Antartikan.



OZEANOETAKO HONDAKINEN %90-%95 PLASTIKOA DA. OZEANOETAKO PLASTIKOEN %70 ITSAS HONDOAN DAGO. ITSASERTZA DUTEN 192 HERRIALDEK 2.500 MILIOI TONA HONDAKIN SOLIDO PRODUZITZEN DUTE. HONDAKIN HORIETARIK 275 MILIOI TONA, PLASTIKOA DA. 2010EAN 8 MILIOI TONA PLASTIKO BOTA ZIREN ITSASORA.